



Arratiako hitanoaren arautzea

Gotzon Aurrekoetxea

► **To cite this version:**

Gotzon Aurrekoetxea. Arratiako hitanoaren arautzea. Euskalingua, Mendebalde Kultur Alkartea, 2003, pp.4-22. artxibo-00072371

HAL Id: artxibo-00072371

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00072371>

Submitted on 24 May 2006

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

Aurrekoetxea2003

Argitaratua in: *Euskalingua* 3, 4-22.

Arratiako hitanoaren arautzea

Gotzon Aurrekoetxea

EHU
fvpauolg@vc.ehu.es

Abstract

Laburpena

Hizkuntzaren aldaera estandarra eta dialekto tradizionalaren artean sortu ohi diren aldaeren arteko dinamikaren barruan kokatzen da artikulu honetako gaia. Hizkuntza guztietan eta hizkuntza barruan ere unibertsala ez bada ere, continuumeko bi muturreko aldaeren artean beste aldaera batzuk sortzen dira usu. Aldaera horien sorreraz arduratzen den marko teorikotik abiatuz Arratiako hitanoaren normatibizazioa aurkezten da.

1. Lanaren jatorria

Gogoratzen ez dudan hilabeteko egun baten, Arratiako *Ganoraz* euskara taldeko lagun bi agertu zitzaizkidan patxada osoan nirekin berba egin gura zutela eta. Mintzagaia euskara taldeak eratu gura zuen bigarren ikastaroa. Urte batzuk aurretik, arrakasta handiz, burutu zen lehen ikastaroan arratieraren ezaugarri nagusienak irakatsi ziren. Ikastaro horretan hartutako esperientzia onak ematen duen lasaitasun eta baikortasunak bultzatuta ildo beretik edo antzekotik jarraitzea gura zuten. Elkarrizketa zabal eta luzean dihardun genuen elkarrizketan ikastaroaren egitura, gaiak, hizlariak etab. aipatuz eta aukera desberdinak proposatuz. Berrito gogoeta eginez hurrengo batean ebazteko utzi genuen.

Handik denbora batera, hausnarketa sakona egin ostean, eta ikastaroaren gai nagusiak zehaztuta zeudela berriro elkartu ginen. Ikastarorako aurkeztu zituzten gaien artean “Arratiako hitanoa” izan behar zuen batek¹. Euren argumentazioa garbi-garbia zen: euskara batuan hezitako gazteak zirenez ez zekitela hitanoan berba egiten eta behar beharrezko zutela euren arteko komunikaziorako. Euren gurasoek eta oro har 40

urtez goragokoek egiten zuten berbakera (alokutiboaren erabilera) ez zekitela konturatzen ziren eta euren buruei itaundu zer arraio egiten zuten, bizimodu guztia Arratian igaro eta bertako hizkera arrotz egiten bazitzairen!

Gaia neure zorroan zamatu nuen, hitanoa ikasteko erakutsi zuten interes bizi horrekin guztiz kutsatu ninduten eta. Handik hilabete batzuetara irakatsi nuen zer zen hitanoa eta Arratian egiten den hitanozko adizkien paradigmatik. Horretarako gaiko literaturan argitaratuta zegoena bildu, argitaratu gabeko lanak arakatu eta ahozko datuen ikerketa egin behar izan nuen bere orokortasunean aztertzeke. Datuetan agertzen ziren aldakien artean hautuak egin ostean adizki alokutiboen paradigmatik behar bezala betez aurkeztu zitzairen ikasleria berezi eta heterogeneo bati.

Ez dakit, egia esan, ikastaroan jarritako itxaropenak bete ote ziren eta zein mailatan. Baina egia esanez jarraituz, ni behintzat jendearen jakin-gogo eta interesarekin batetik eta ikastaroan zehar egin zuten lanarekin, bestetik, oso pozik gelditu nintzela esan dezaket.

Lan honek dituen helburuen artean ikastaroan zehar agindutakoak sortu duen zorra

¹ 2003 urteko martxo-apirilean irakatsi zen ikastaroak hiru gai nagusi izan zituen: *Begitu* aldizkariko hizkeraren azterketa, Arratiako hitanoa eta “Gure Berbageie” (Arratiako lexiko eta esamoldeen hiztegia).

kitatzea da, hain zuzen ere. Ikastaroaren amaierarako agindu nuena orain argitaratzen denarekin betetzen dudalako. Tartean denboratxo bat joan bada ere, uste dut umotuago eta osoago atera dela eta onura handiagoa izango duela, besteak beste ikastaroan izan ez zen jendeak ere eskuragarri izango duelako.

2. Lanaren marko teorikoa²

Batek baino gehiagok uste izango du, azkenaldion euskalkien, aldaeren eta tokian-tokiko hizkeren susperraldi honek sortu duen dinamikak bultzatuta sortu dela lan hau eta hizkuntzaren eremu honetara anabasa gehiago ekartzeko asmoz egina dela.

Alta, izatez, lanaren asmoa oso urrun dago asmo horietatik. Izan ere, gure berbetearen aldaera desberdinen funtzio eta zereginen artean euskararen osasuna, oreka eta kalitatea jagon edo zaintzeko ahaleginetan oinarritzen da.

Hizkuntzaren kalitatea aldaera estandarra *urbi et orbi* zabalduz eta gainerako aldaera guztiak desagertaraziz ez dela neurtzen uste duten horietarikoa naizela esan behar dut, neure burua aurkezteko. Nire aburuz ez dugu pentsatu behar, Euskal Herri zabalean denok (zahar eta gazte, kulturgile eta kale-ibiltzaile, eskolatu eta esku-behargin, agintari eta langile) euskara batuan berba egingo dugula noiznahi eta edonon; onartu beharra dago. Ene irudiko, gure artean bizi diren hainbat eta hainbat pertsonak ez du bere bizimodu guztian euskara batuan edo hizkuntza kultuan berba egiteko beharrik izango. Eta horiek ere egunero egin beharko dute berba, eta euskaraz, ardura akademikorik gabe gainera, egin dezaten gura dut.

Honek euskara bakar baten ordeztu, euskara asko ez badira ere bakar bat baino gehiago behintzat beharko ditugula adieraziko luke. Aldaera bakar bat baino gehiago, alegia.

Beraz, presta gaitzen eta presta dezagun gure hizkuntza giro bakoitzari dagokion aldaerarekin, Sakondu dezagun hiztun multzo bakoitzari egokien datorkion eremuan. Lan egin dezagun, adibidez, gazteentzako baliagarri den argotarekin, herritarrek lagunartean hitz egiteko aldaera baliagarrietan etab.

Orain arteko ikerketa eta argitalpenetan hizkera tradizionala, herriko hizkera beste era batean esanda, inork ez du arautzea edo normalizatzea proposatu, etxeko hizkera normaliza-ezina bailizan. Teorikoki planteatu ez den arren, praktikan herri askotan egin behar izan dute, hala ere, herri-aldizkariak sortuz joan direnean. Ez denetan, egia esan, baina herri batean baino gehiagotan izan dute horren beharra eta neke handiz eta izerdi askorekin, kasu onenean nola edo halako aldaera normalizatu bat lortu dute.

Norabide berean jarraituz, antzeko arazoak sortzen dira herriko hizkera ikasteko eskaera bat dagoenean: zelan irakatsi herriko hizkera, herri horretan koexistitzen diren aldaera desberdinen artean normalizazioa lortzen ez bada? Ez dira hauek balizko aukerak, jada batean eta bestean agertu eta irtenbidea eman behar izan zaien arazoak baino. Bada, arazo praktikoa batzuekin aurkitzen gara, teorikoki behintzat, tokian-tokiko hizkerak normalizatzeko aukerarik ematen ez dugun bitartean.

Aldaera estandarraren eta euskalkien edo hizkera tradizionalen arteko harremanez duela urte batzuk baino gehiago dakigu gaur egun. Bata eta bestearen elkar-eragintzan bitarteko aldaerak sortu ohi dira usu, faktore desberdinak eraginik eta baldintza batzuen pean.

Europako zenbait hizkuntza eta lurralde askotan sortu dira bitarteko aldaera horiek. Besteak beste, Auer eta Hinskens-ek (1996) erakutsi dutenez eskualdeko estandarra eta lurralde-berbeta deitu ditugun aldaerak dira sortu diren aldaera berriak; eta euskararen kasuan ere, esan dezakegu sortu den aldaera berria lurralde-berbeta dela. Lurralde-berbeta hauek euskalki literarioetan oinarrituz sortu dira eta euskalkiek euskara batuaren eraginari aurre egin eta babesteko tresna estrategiko gisa sortu dute. Euskara batua eta jatorrizko euskalki edo hizkeren artean lurralde-berbetak geroago eta egituratuago eta normalizatuago bilakatzen doaz gure artean (Aurrekoetxea: 2003). Tradizio

² Lanean zehar erabiliko dudan terminologiaz ohar batzuk egin gura nituzke: 'aldiera estandarra' beste esamolde batean 'euskara batua' esaten dugunaren kidetzat erabiltzen dut. Euskalki edo 'dialekto tradizionala' eta plano berean dagoen 'jatorrizko euskalki edo hizkera' euskalkian edo tokian-tokiko hizkeran kanpoko eragin edo kutsadurarik gabe hitz egiten duen hiztunak ekoizten duen aldaera litzateke. 'Lurralde-berbeta' edo 'erregiolektoa' aldaera estandarra eta jatorrizko hizkeraren artean dagoen aldaera berria.

literario hori etenik gabe heldu da gure arteraino Iparraldeko euskalkiei dagokienez: baxenafarrera-lapurterak eta zubererak ez dute etenik ezagutu batua sortuz geroz ere. Eta aldizkari eta gainerako ekintza publikoetan erabiltzen jarraitu da.

Hegoaldean, ostera, bestelako kukuak jo du batua sortu zenetik. Aldaera estandarrak gainerako aldaera guztiak suntsitu bidean ezarri ditu, idatzizko hauen agerrera maila testimonialeraino eramanez. Batuaren ezarrera indartsua eta bortitza izan da bai teoria mailan, bai praktikan.

Maila teorikoan aldaera idatzia bakartzat edonon eta edonoiz erabiltzekotzat joz euskalkiak ahozkorako bakarrik uztea defendatu dutenen zerrenda luzea da oraindik gaur egun ere. Praktikan, ondorioz, ezer gutxi egin ahal izan da aldaera estandarraz gainerakoen normalizazioan.

Aldaera estandarren indarraren eraginez betidaniko aldaera tradizionalak sustraitik desagertzeko arrisku bizia ikusi denean bakarrik sortu da eragin horren aurkako mugimendua. Mugimendu hau Hegoaldeko gune batzuetan baino ez da garatu. Eta nolabaiteko egituraketa euskararen mendebaldean ezagutu du era adierazkorrean.

Aldaera berrien sorrera eta egituraketa hau marko teorikoan dialekto tradizionalak aldaera estandarren erasoaren aurrean babesteko sortutako estrategiaren ondorioztat jotzen da (Auer / Hinskens 1996: 7). Gaiak egin diren ikerlanetan zehar izendapen desberdinak jaso ditu (erregiolekto, dialekto erregionala...), euskaraz "lurralde-berbeta" izendatu dugunak (honen ezaugarrietarako ikus Aurrekoetxea 2003).

Dena den, lurralde-berbeta ez da nahitanahiez lurralde guztietan garatzen. Aldaera berri hau garatzeko, beste faktore batzuen artean, euskalki eta hizkeren indarra garrantzizko ezaugarria izaten da.

Garatzen denetan ere ez dira leku guztietan maila berean eta aldaera berak garatzen: batean lurralde-berbeta, bestean herri-berbeta... izan daitezke garatzen diren ereduak.

Artikulu honetan proposatzen eta garatzen diharduguna azpilurralde-berbeta izango litzateke. Azpilurralde-berbetaren kokalekua dialekto edo

hizkera tradizional eta lurralde-berbetaren bitartean egongo litzateke.

Honekin ez dugu esan gura han eta hemen azpilurralde eta herri-berbetak normalizatzea bultzatzearen aldekoak garenik. Baina eskaera dagoen lekuan aktuatu behar dela uste dugu. Hori da, beste eremu batzuetan legez, Arratian ere *Begitu* aldizkaria sortzean egin zena: ekimen teknikoaren artean aldizkarirako hizkuntza ereduak finkatzeari heldu zitzaionean. Arratiako hizkeren ezaugarri nagusienak bizkaiera literarioan txertatu ziren; lortu den ereduak alde batetik Arratiako hizkeratik eta bestetik bizkaiera literariotik oso hur dago. Edo beste berba batzuekin esanda: bizkaiera literarioa Arratiako fiabardura edo ezaugarriekin osotua dagoen ereduak lortu da.

Beharbada, baten batentzat aldaera estandarretik asko urruntzea izan liteke planteamendu hau eta arbuiatu behar den txokokeriatzat joko luke. Gure ustez hizkuntza eredu hau ez da txokokeriatzat hartu behar eta ez du txokokeriarik bultzatzen. Izan ere, hizkuntza aldaki bat baino gehiago agertzen diren kasuetan estandarretik hurbilen dena aukeratzen da. Hori gertatu da, kasu bat baino ez aipatzearen, *gintzazan* eta *ginan* adizkien kasuan, esaterako. Arratian adizki biak erabiltzen diren arren aldizkarirako ereduak zehaztean bigarrenari eman zitzaion lehentasuna; eta lehenengoa guztiz baztertzen ez bada ere, bigarrena da nagusiki erabiltzen dena.

Horrelako erabaki asko hartu dira eredu bateratzaile horretan, kontrakzio eta fonetismoak eredu idatzitik baztertuz.

Eredu honekin lortu gura dena ondokoa da: Arratiako hiztunek euren berbaketatik oso gutxi aldetzen den eta eurentzat har lezaketen eredu idatzi bat izatea. Euren berbakera molde idatzian ezartzea, hain zuzen ere.

3. Hizketa informalearen marko teorikoa

Orain arteko ikerketetan hizketa formala landu da. Ikerketa lerro teorikoan lagunarteko hizketari edo informalarik dagokion edo zor zaion kokapena oraindik erabaki gabe dago.

Zer egin behar da lagunarteko hizkera edo erregistro informalekin? Zer egin behar da hizkera informalean baino agertzen ez diren hizkuntza ezaugarriekin? Eta horietan nabarmenetakoa den hitano edo alokutiboarekin?

Aldaera estandarrean egoera informaletan erabili behar den aditzari buruz Euskaltzaindiak ebatzi du bere proposamena, zati batean behintzat. Eta honekin hizkuntza bere osotasunean hartuz egoera formal eta informaletarako gaitzen ari gara, aldaera estandarra nonahi eta egoera guztietarako erabilgarri jarritz. Hizkuntza bere erregistro desberdinak kontuan izanik bere osotasunean hartuz, oreka bat bilatzen ari da, modu horretan.

Aldaera estandarra, aldiz, nahikoa ote da edo baliagarria ote da egoera guztietan erabiltzeko? Erantzunak ezezkua dirudi. Gure kaleetan ume izateari utzi dion belaunaldi osoa dugu ikastola eta eskoletan euskara batuan hezia: hizkuntaren erregistro formal eta bakarraren jabe da nagusiki belaunaldi hau. Horregatik hain zuzen ere lagunarteko erregistroan aritzeko gabeziak aurkitzen dituzte: batetik, nahitaezkoa dute erregistro informala lagunartean, txantxetarako, hizketa arinerako edo berorako, eta bestetik, ez dute bat ere garatua erregistro hori.

Aipamen ugari izan arren, maila teorikoan, salbuespentzat jo daitezkeen ikerketa bakar batzuk kanpo, erregistro informal horri buruz gure artean ikerketa gutxi egin da orain artean eta ezer gutxi dakigula onartu arren, bee sorrera bultzatu beharra dago. Hizkuntzaren osatze eta orekarako ezinbestekotzat jo behar da; Arratiako gazteek, adibidez, *ikusi ninan* esan behar ote du lagun bat ikusten duenean? Ez ote da normalago bere guraso eta arbasoek legez *ikusi nonan* esatea? Kasu honetan adizki alokutiboan aldaera txikia izan arren paradigma osoa agertzean bestelako errealtate batean aurrean geundeke.

Hizkuntza bere osotasunean orekatua eta aberatsa izan dadin gura badugu egoera eta eremu

5. Hitanozko alokutibo perifrastikoaren paradigmak³

5.1. Nor (izan)

guztietarako eta erregistro guztietarako eraiki beharko dugu. Aldaera soziolinguistiko eta geolinguistikoak kontuan hartzen diren legez, erregistro formal eta informalak ere hartu behar dira.

4. Hizketa informalearen estandarizazioa

Berez, badirudi hizketa informalak edo lagunartekoak ez duela normatibizatu beharrik. Lagunarteko komunikazioa errazteko bitarteko guztiak dira baliagarri eta ondorioz unean uneko, pragmatikak gidaturik, ekoizten dela.

Baina hori guztia hizkuntza normalizatu eta orekatu baterako baliagarri izan badaiteke ere, euskararen kasuan uste dugu ez dela aintzat hartzekoa. Zeren gure hizkuntzak bizi duen egoeran behar beharrezkotzat jotzen baitut egoera guztietarako euskara moldea sortu edo egokitu behar ditugula. Ahalegin berezia eskatzen zaigu alb bait arinen euskara doitzea.

Ikuspuntu honetatik defendatzen dugu hizketa informalearen estandarizazioa: edozein egoeratan, edozein erregistrotan pertsona orok erabiltzeko aldaerak behar ditu euskarak, edozein komunikaziotarako lanabes gisa.

Hizkuntza aldaera desberdinetan erregistro formal eta lagunartekoak sortu behar dira euskara bere osotasunean garatua izan dadin ikusi nahi badugu.

Kasu honetan herri-berbeta aldaeraren lagunarteko erregistroarako aditzaren normalizazioa bultzatzen dugu Arratiarako hitanoko alokutiboaren adizkiak argitaratuz.

³ Adizki batzuetan azaltzen den [eɾ] hotsa edo soinura ordezkatzeko “j” grafema erabiliko dugu sistematikoki lan honetan.

5.1.1. Izan [+orain]

Naz	nok / nona
Da	dok / dona
Gara	gozak / gozana
Dira	dozak / dozana

5.1.2. Izan [+iragan]

Nintzan	nintzoan / nintzonan
Zan	zoan / zoanan
Giñan	gintzoazan / gintzozanan
Ziran	zoazan / zozanan

5.1.3. Izan alegiazkoa [-ahal]

Banintz	banintzok/na
Balitz	balitzok/na, balikitok/na
Bagiña	bagintzozak/na, bagintikozak/na
Balira	balitzozak/na, balitikozak/na

5.1.4. Izan alegiazkoa [+ahal]

nintzateke	nintzatekek/na, nintikok/na
litzake	litzakek/na, litikok/na
ginake	gintzakezak/na, gintikozak/na
lirake	litzakezak/na, litikozak/na

5.2. Edin**5.2.1. Edin [+orain]**

Naiten	naitoan
Haiten	haitoan
Daiten	daitoan
Gaitezan	gaitoazan
Zaitezan	zaitoazan
Daitezan	daitoazan

5.2.2. Edin [+iragan]

Neinten	neintoan
Heinten	heintoan
Eiten	heitoan
Geintezan	geintoazan
Zeintezan	zeintoazan
Eitezan	eitoazan

5.2.3. Edin [+ahal, +orain]

naiteke	naitekek/na
daiteke	daitekek/na
gaitekez	gaitekezak/na

daitekez daitekezak/na

5.2.4. Edin [+ahal, +iragan]

ninteke nintekek/na
 liteke litekek/na
 litikok/na
 gintekez geintekezak/na
 litekez leitekezak/na

5.3. Nor-Nori

5.3.1. Izan [+orain]

	ni	ha	gu	hareik
Niri		jatak/na		jatazak/na
Hari	ñakok/na	jakok/na	gakoza/na	jakoza/na
Guri		jakuk/na		jakuzak/na
Haiei	ñakiek	Jakiek/na	gakieza/na	jakieza/na

5.3.2. Izan [-ahal, +iragan]

	ni	ha	gu	hareik
Niri		jatan/nan		jatazan/nan
Hari	ñakoan/nan	Jakoan/nan	gakoazan/nan	jakoazan/nan
Guri		Jakuan/nan		jakuazan/nan
Haiei	ñakien/nan	Jakian/nan	gakiazan/nan	jakiazan/nan

5.3.3. Izan [-ahal, +alegia]

Kasu honetan eta ondoko beste batzuetan bi aditz forma jaso dira, bata tradizio literarioarekin lotura handiagoa duena, bigarrena herritarragoa; biak eman dira ontzat.

	ni	ha	gu	hareik
Niri		ballatak/na balitxakidak/na		ballatazak/na balitxakidazak/na
Hari	banintxakok/na	ballakok/na balitxakiok/na	bagintxakozak/na	ballakozak /na balitxakozak/na
Guri		ballakuk/na balitxakiguk/na		ballakuzak/na balitxakiguzak/na
Haiei	banintxakiek/na	ballakiek/na balitxakiek/na	Bagintxakieza/na	ballakieza/na balitxakieza/na

* [+iragan]: ballatan/nan, ballatazan/nan

5.3.4. Izan [+alegia, +ahal]

	ni	ha	gu	hareik
Niri		llatak/na litxakit/na		llatazak/na litxakitazak/na
Hari		llakok/na litxakiok/na		llakozak/na litxakiozak/na
Guri		llakuk/na		llakuzak/na

		litxakiguk/na		litxakiguzak/na
Haiei		llakiek/na litxakiek/na		llakiezak/na litxakiezak/na

[+iragan]: llatan/nan, llatazan/nan...

5.4. Edin (Nor-nori)

5.4.1. Edin (nor-nori) [+orain, -ahal]

	ni	ha	gu	hareik
Niri		llakidak/na litxakidak/na		llatazak/na litzakidazak/na
Hari		llakiok/na litxakiok/na		llakiozak/na litzakiozak/na
Guri		llakiguk/na litxakiguk/na		llakiguzak/na litzakiguzak/na
Haiei		llakiek/na litxakiek/na		llakiezak/na litxakiezak/na

5.5. *Edun nor-nork

5.5.1. *Edun nor-nork [+orain]

Datu-biltzaileek adizki desberdinak jaso dituzte. Batzuetan aldaera fonetiko hutsak dira (hala nola *yoasat / yoazat, dozak / dosak...*), beste batzuetan aldaera morfologikoak ere agertzen dira (*ñok / nayok, ñauriek / nayone...*). Aldaera ugaritasun honetatik erabilienak eta bizkaiera literariotik hurren diren adizkiak aukeratu dira.

	ni	ha	gu	hareik
Nik		joat/nat		jozat/nat
Hark	ñok/na	jok /na	gaituzak/na gajozak/na	jozak/na
Guk		joguk/na		joguzak/na
Hareik	ñauriek/na	jauriek/na juek/na	gaituzek/na gajozek/na	jauriezek/na juezek/na

5.5.2. *Edun nor-nork [-ahal, +iragan]

Aurreko kasuan legez, hemen ere aldaki asko jaso da. Denetarik aukera bat egin da. Aukera egiteko gorago jarraitutako irizpideak erabili dira.

	ni	ha	gu	hareik
Nik		ñoan/nan najoan/nan		ñoazan/nazan najoazan/nazan
Hark	ñaudian/nan ñeindian/nan	joan/nan	giñuazan/nazan	joazan/nazan
Guk		geiñoan/nan		geiñoazan/nazan
Hareik	ñaudien/nan	jaurian/nan	giñuriazan/nazan	jauriazan/nazan

5.5.3. *Edun nor-nork [-ahal, +alegia]

	ni	ha	gu	hareik
Nik		bañeunkek/na		bañeunkezak/na

		bañok/na		bañozak/na
Hark	bañeinduk/na	ballok/na balleuk/na	bageinduzak/na	ballozak/na balleuzak/na
Guk		bageunkek/na		bageunkezak/na
Hareik	Bañeinduriezak/na bañinduezak/na	ballaukiek/ena balleuek/na	bageinduezak/na	ballaukiezak/na balluezak/na

5.5.4. *Edun nor-nork [+ahal, +alegia]

	ni	ha	gu	hareik
Nik		ñeunkek/na		ñeunkezak/na
Hark	ñindukek/na	lleuek/na	gindukezak/na	lleukezak/na
Guk		geunkek/na		geunkezak/na
Hareik	ñindukiek/na	lleukiek/ena	gindukiezak/na	lleukiezak/na

5.6. Egin Nor-nork

5.6.1. Egin nor-nork [+ahal, +orain]

	ni	ha	gu	hareik
Nik		ñeinkek/na		ñeinkezak/na
Hark		lleikek/na lleik/na		lleikezak/na
Guk		geinkek/na		geinkezak/na
Hareik		lleikiek/na lleiek/na		lleikiezak/na

5.6.2. Egin nor-nork [+iragan]

	ni	ha	gu	hareik
Nik		ñeinkean/nan		ñeinkeazan/nazan
Hark		lleikean/nan		lleikeazan/nazan
Guk		geinkean/nan		geinkeazan/nazan
Hareik		lleikian/nan		lleikiazan/nazan

5.7. *Edun NNN

5.7.1. *Edun NNN [+orain] (nor singularra)

	niri	hari	guri	harei
Nik		jeutsat/nat		jeutsiat/nat
Hik	deustak/na	jeutsak/na	deuskuk/na	deutsiek/na
Hark	jeustak/na	jeutsek/na	jeuskuk/na	jeutsiek/na
Guk		jeutseguk/na		jeutsieguk/na
Hareik	jeustiek/na	jeutsiek/na	jeuskuek/na	jeutsiek/na

Nor plurala egiteko –za- gehitu behar da: *jeustazak/na, jeustiezak/na...*

5.7.2. *Edun NNN [+iragan] (nor singularra)

	niri	hari	guri	harei
Nik		ñeuntxan/nan		ñeuntxian/nan
Hark	jeustan/nan	jeutxan/nan	jeuskuan/nan	jeutxian/nan

Guk		geuntxan/nan		geuntxian/nan
Hareik	jeustian/nan	jeutxian/nan	jeuskuean/nan	jeutxiean/nan

Nor plurala egiteko –za- eransten zaio adizkiari: *jeustanan / jeustazanan, jeutxan / jeutxazanan...*

5.7.3. *Edun NNN [alegia]

	niri	hari	guri	harei
Nik		bañeuntsok/na bañeuskiok/na		bañeuntsiek/na bañeuskioek/na
Hark	balleustak/na	balleutsak/na balleuskiok/na	balleuskuk/na balleuskiguk/na	balleutsiek/na balleuskiek/na
Guk		bageuntsok/na bageunskiok/na		bageuntsiek/na bageunskioek/na
Hareik	balleustiek/na	balleutsiek/na balleuskiek/na	balleuskuek/na balleuskiguek/na	balleutsiek/na balleuskioek/na

5.7.4. *Edun NNN [+ahal]

	niri	hari	guri	harei
Nik		ñeuskiok/na		ñeuski(o)ek/na
Hark	llaustek/na	lleutsek/na lleuskiok/na	lleuskuk/na lleuskiguk/na	lleutsiek/na lleuskiek/na
Guk		geunskiok/na		geunskioek/na
Hareik	lleustiek/na	lleutsiek/na lleuskiek/na	lleuskuek/na	lleutsiek/na lleuskiek/na

5.8. Egin NNN

5.8.1. Egin NNN [+ahal, +orain]

	niri	hari	guri	harei
nik		ñeiskiok/na		ñeiskioek/na
Hark	lleiskik/na	lleiskiok/na lleikiok/na	lleiskiguk/na lleikiguk/na	lleiskiek/na lleikiek/na
Guk		geiskiok/na geinkiok/na		geiskioek/na geinkiek/na
Hareik	lleiskiek/na	leikiek/na leiek/na	lleiskiguk/na	lleiskioek/na lleiek/na

6. Adizki trinkoak

6.1. Nor

6.1.1. [-ahal, +orain]

6.1.1.1. Egon

[+orain]	[+iragan]	[+alegia]
ñagok	ñengoan/nan	bañengok/na
jagok	jegoan/nan	ballegok/na
gagozak	gengoazan/nan	bagengozak/na

jagozak jegoazan/nan ballegozak/na

6.1.1.2. Joan

[+orain]	[+iragan]	[+alegia]
ñoak/na	niñoan/nan	baniñoak/na
joak/na	joan/nan	leioak/na
goazak/na	giñoazan/nan	bagiñoazak/na
joazak/na	joazan/nan	baleioazak/na

6.1.1.3. Etorri

Ñatok/na	ñentorran/nan	bañentork/na
Jatok/ba	jetorran/nan	balletork/na
Gatozak/na	gentoazan/nan	bagentozak/na
Jatozak/na	jetozan/nan	balletozak/na

6.1.1.4. Ibili

ñabilk/ña	ñenbillan/nan	bañenbilk/na
jabik/ña	jebillan/nan	ballebilk/na
gabizak/na	genbiazan/nan	bagenbilzak/na
jabizak/na	jebilzan/nan	ballebilzak/na

6.2. NOR-NORI

6.2.1. [-ahal, +orain]

6.2.1.1. Egon

	ni	ha	gu	hareik
Niri		jagodak/na		jagodazak/na
Hari	ñagokok/na	jagokok/na	gagokozak/na	jagokozak/na
Guri		jagokuk/na		jagokuzak/na
Harei	ñagokiek/na	jagokiek/na	gagokiezak/na	jagokiezak/na

6.2.1.2. Joan

	ni	ha	gu	hareik
Niri		joatak/na		joatazak/na
Hari	ñoakok/na	joakok/na	goakozak/na	joakozak/na
Guri		joakuk/na		joakuzak/na
Harei	ñoakiek/na	joakiek/na	goakiezak/na	joakiezak/na

6.2.1.3. Etorri

	ni	ha	gu	hareik
Niri		jatortak/na		jatortazak/na
Hari	ñatorkok/na	jatorkok/na	gatorkozak/na	jatorkozak/na
Guri		jatorkuk/na		jatorkuzak/na
Harei	ñatorkiek/na	jatorkiek/na	gatorkiezak/na	jatorkiezak/na

6.2.1.4. Ibili

	ni	ha	gu	hareik
Niri		jabiltak/na		jabiltazak/na
Hari	ñabilkok/na	jabilkok/na	gabilkozak/na	jabilkozak/na
Guri		jabilkuk/na		jabilkuzak/na
Harei	ñabilkiek/na	jabilkiek/na	gabilkiezak/na	jabilkiezak/na

6.2.2. [-ahal, +iragan]

6.2.2.1. Egon

	ni	ha	gu	hareik
Niri		jagokoatan/nan		jagokoatazan/nan
Hari	ñagokoan/nan	jagokoan/nan	gagokozan/nan	jagokoazan/nan
Guri		jagokuan/nan		jagokuazan/nan
Harei	ñagokien/nan	jagokien/nan	gagokiezan/nan	jagokiezan/nan

6.2.2.2. Joan

	ni	ha	gu	hareik
Niri		joakiatan/nan		joatazan/nan
Hari	ñoakoan/nan	joakoan/nan	goakozan/nan	joakoazan/nan
Guri		joakuan/nan		joakuazan/nan
Harei	ñoakien/nan	joakien/nan	goakiezan/nan	joakiezan/nan

6.2.2.3. Etorri

	ni	ha	gu	hareik
Niri		jatorkiatan/nan		jatortazan/nan
Hari	ñatorkoan/nan	jatorkoan/nan	gatorkozan/nan	jatorkoazan/nan
Guri		jatorkuan/nan		jatorkuazan/nan
Harei	ñatorkien/nan	jatorkien/nan	gatorkiezan/nan	jatorkiezan/nan

6.2.2.4. Ibili

	ni	ha	gu	hareik
Niri		jabilkiatan/nan		jabiltazan/nan
Hari	ñabilkoan/nan	jabilkoan/nan	gabilkozan/nan	jabilkoazan/nan
Guri		jabilkuan/nan		jabilkuazan/nan
Harei	ñabilkien/nan	jabilkien/nan	gabilkiezan/nan	jabilkiezan/nan

6.2.3. [-ahal, +alegia]

6.2.3.1. Egon

	ni	ha	gu	hareik
Niri		ballagotak/na		ballagotazak/na
Hari	bañagokok/na	ballagokiok/na	bagagozkiok/na	ballagokiozak/na
Guri		ballagokiguk/na		ballagokiguzek/na
Harei	bañagokiek/na	ballagokiek/na	bagagozkiek/na	ballagokiezak/na

6.2.3.2. Joan

	ni	ha	gu	hareik
Niri		balloatak/na		balloatazak/na
Hari	bañoakok/na	balloakok/na	bagoazkok/na	balloakozak/na
Guri		balloakiguk/na		balloakiguzek/na
Harei	bañoakiek/na	balloakiek/na	bagoazkiek/na	balloakiezak/na

6.2.3.3. Etorri

	ni	ha	gu	hareik
Niri		ballatortak/na		ballatortazak/na
Hari	bañatorkok/na	ballatorkiok/na	bagatorzkiok/na	ballatorkiozak/na
Guri		ballatorkiguk/na		ballatorkiguzek/na
Harei	bañatorkiek/na	ballatorkiek/na	bagatorzkiek/na	ballatorkiezak/na

6.2.3.4. Ibili

	ni	ha	gu	hareik
Niri		ballabiltak/na		ballabiltazak/na
Hari	bañabilkok/na	ballabilkiok/na	bagabilzkok/na	ballabilkozak/na
Guri		ballabilkiguk/na		ballabilkiguzek/na
Harei	bañabilkiek/na	ballabilkiek/na	bagabilzkiek/na	ballabilkiezak/na

6.2.4. [+ahal, + alegia]**6.2.4.1. Egon**

	ni	ha	gu	hareik
Niri		llagotakek/na		llagotakezak/na
Hari	ñagokokek/na	llagokiokek/na	gagozkiokek/na	llagokiokezak/na
Guri		llagokigukek/na		llagokigukezak/na
Harei	ñagokiekek/na	llagokiekek/na	gagozkiekek/na	llagokiekezak/na

6.2.4.2. Joan

	ni	ha	gu	hareik
Niri		lloatakek/na		lloatakezak/na
Hari	ñoakokek/na	lloakiokek/na	goazkiokek/na	lloakiokezak/na
Guri		lloakigukek/na		lloakigukezak/na
Harei	ñoakiekek/na	lloakiekek/na	goazkiekek/na	lloakiekezak/na

6.2.4.3. Etorri

	ni	ha	gu	hareik
Niri		llatortakek/na		llatortakezak/na
Hari	ñatorkokek/na	llatorkiokek/na	gatorkiokezak/na	llatorkiokezak/na
Guri		llatorkigukek/na		llatorkigukezak/na
Harei	ñatorkiekek/na	llatorkiekek/na	gatorkiekezak/na	llatorkiekezak/na

6.2.4.4. Ibili

	ni	ha	gu	hareik
--	----	----	----	--------

Niri		llabiltakek/na		llabiltakezak/na
Hari	ñabilkokek/na	llabilkiokek/na	gabilkiokezak/na	llabilkokezak/na
Guri		llabilkigukek/na		llabilkigukezak/na
Harei	ñabilkiekek/na	llabilkiekek/na	gabilkiekezak/na	llabilkiekezak/na

6.3. NOR-NORK

6.3.1. [-ahal, +orain]

6.3.1.1. Eduki

	ni	ha	gu	hareik
Nik		jeukaat/nat		jeukazat/nat
Hark	ñeukek/na	jeukak/na	geukozak/na	jeukezak/na
Guk		jeukuk/na		jeukuzak/na
Hareik	ñeukiek/na	jeukiek/na	geukiezkak/na	jeukiezkak/na

6.3.1.2. Ekarri

	ni	ha	gu	hareik
Nik		jakart/nat		jakarzat/nat
Hark	ñakark/na	jakark/na	gakarzak/na	jakarzak/na
Guk		jakarguk/na		jakarguzak/na
Hareik	ñakarriek/na	jakarriek/na	gakarrezak/na	jakarriekak/na

6.3.1.3. Eroan

	ni	ha	gu	hareik
Nik		jaroat/nat		jaroazat/nat
Hark	ñaroak/na	jaroak/na	garoazkuk/na	jaroazak/na
Guk		jaroaguk/na		jaroaguzak/na
Hareik	ñaroadiek/na	jaroardiek/na	garoazkuek/na	jaroardiezkak/na

6.3.1.4. Jakin

	ni	ha	gu	hareik
Nik		jakiat/nat		jakiazat/nat
Hark		jakik/na		jakizak/na
Guk		jakiguk/na		jakiguzak/na
Hareik		jakiek/na		jakiezkak/na

6.3.1.5. -iño-

	ni	ha	gu	hareik
Nik		diñoat/nat		diñoazat/nat
Hark		diñok/na		diñozak/na
Guk		diñoguk/na		diñoguzak/na
Hareik		diñodiek/na		diñodiezkak/na

6.3.1.6. Erabili

	ni	ha	gu	hareik
Nik		jarabiat/nat		jarabizat/nat

Hark	ñarabik/na	jarabilk/na	garabilzak/na	jarabilzak/na
Guk		jarabilguk/na		jarabilguzak/na
Hareik	ñarabistiek/na	jarabildiek/na	garabilezak/na	jarabildiezak/na

6.3.2. NOR-NORK [-ahal, +iragan]

6.3.2.1. Eduki

	ni	ha	gu	hareik
Nik		ñeukan/nan		ñeunkazan/nan
Hark		jeukan /nan		jeukazan/nan
Guk		geunkaan/nan		geunkazan/nan
Hareik		jeukian/nan		jeukiezan/nan

6.3.2.2. Ekarri

	ni	ha	gu	hareik
Nik		ñenkarren/nan		ñekarzan/nan
Hark	ñenkarran/nan	jekarren/nan	genkarzan/nan	jekarzan/nan
Guk		genkarran/nan		genkarzan/nan
Hareik	ñekarrien/nan	jekarrien/nan	genkarrezan/nan	jekarriezan/nan

6.3.2.3. Eroan

	ni	ha	gu	hareik
Nik		ñeroan/nan		ñeroazan/nan
Hark	neroan/nan	jeroan/nan	geroazan/nan	jeroazan/nan
Guk		geroan/nan		geroazan/nan
Hareik	neroen/nan	jeroien/nan	geroiezan/nan	jeroiezan/nan

6.3.2.4. Jakin

	ni	ha	gu	hareik
Nik		ñenkian/nan		ñenkiazan/nan
Hark		jekian/nan		jekiazan/nan
Guk		genkian/nan		genkiazan/nan
Hareik		jekiean/nan		jekiezan/nan

6.3.2.5. -iño-

	ni	ha	gu	hareik
Nik		ñiñoan/nan		ñiñoazan/nan
Hark		jiñoan/nan		jiñoazan/nan
Guk		giñoan/nan		ginoazan/nan
Hareik		jiñoen/nan		jinoezan/nan

6.3.3. [-ahal, +alegia]

6.3.3.1. Eduki

	ni	ha	gu	hareik
Nik		bañeunkok/na		bañeunkezak/na
Hark	bañeunkok/na	balleukok/na	bageunkozak/na	balleukezak/na

Guk				bageunkezak/na
Hareik	bañeunkiek/na	balleukiek/na	bageunkiezak/na	balleukiezak/na

6.3.3.2. Ekarri

	ni	ha	gu	hareik
Nik		bañenkark		bañenkazak/na
Hark	bañenkark/na	ballekark	bagenkark/na	ballekazak/na
Guk		bagenkark/na		bagenkarzak/na
Hareik	bañenkarriek/na	ballekarriek/na	Bagenkarriek/na	ballakarriek/na

6.3.3.3. Jakin

	ni	ha	gu	hareik
Nik		bañenkik/na		bañenkizak/na
Hark		ballekik/na		ballekizak/na
Guk		bagenkik/na		bagenkizak/na
Hareik		ballekiek/na		ballekiezak/na

6.4. NOR-NORI-NORK

6.4.1. [-ahal, +orain]

6.4.1.1. Eduki

	niri	hari	guri	harei
Nik		jeukotzet/nat		jeukotziet/nat
Hark	jeukustek/na	jeukotzek/na	jeukuskuk/na	jeukutziek/na
Guk		jeukotzeguk/na		jeukotzeguek/na
Hareik	jeukostiek/na	jeukotziek/na	jeukuskuek/na	jeukutziek/na

6.4.1.2. Ekarri

	niri	hari	guri	harei
Nik		jakatzat/nat		jakatziat/nat
Hark	jakastek/na	jakatzak/na	jakazkuk/na	jakatziek/na
Guk		jakatzeguk/na		jakatzeguek/na
Hareik	jakastiek/na	jakartziek/na	jakazkuek/na	jakatziek/na

6.4.1.3. Eroan

	niri	hari	guri	harei
Nik		jaroatzat/nat		jaroatziat/nat
Hark	jaroatzat/nat	jaroatzok/na	jaroatzaguk/na	jaroatziek/na
Guk		jaroazkuk		jaroazkuek/na
Hareik	jaroatziat/nat	jaroatziek/na	jaroatzeguek/na	jaroatziek/na

6.4.1.4. -iño-

	niri	hari	guri	harei
Nik		diñotzet/nat		diñotziat/nat
Hark	diñostek/na	diñotzok/na	diñozkuk/na	diñotziek/na

Guk		diñotzuguk/na		diñotzuguek/na
Hareik	diñostiek/na	diñotziek/na	diñozkuek/na	diñotziek/na

6.4.1.5. Erabili

	niri	hari	guri	harei
Nik		jarabiltzat/nat		jarabiltziet/nat
Hark	jarabiztek/na	jarabiltzok/na	jarabizkuk/na	jarabiltziek/na
Guk		jarabiltzuguk/na		jarabiltzeguek/na
Hareik	jarabiztiak/na	jarabiltziek/na	jarabizkuek/na	jarabiltziek/na

6.4.1.6. Eritzi

	niri	hari	guri	harei
Nik		Deritxat/nat		Deritxet/nat
Hark		deritxok/na		deritxek/na
Guk		deritxoguk/na		deritxeguk/na
Hareik		deritxoek/na		deritxiak/na

6.4.2. NNN [+alegia]

6.4.2.1. Eduki

	niri	hari	guri	harei
Nik		bañeukotzok/na		bañeukotziek/na
Hark	balleukoztek/na	balleukotzok/na	balleukoskuk/na	balleukotziek/na
Guk				
Hareik	balleukoziak/na	balleukotziek/na	balleukoziak/na	balleukotziek/na

6.4.2.2. Ekarki

	niri	hari	guri	harei
Nik				
Hark	ballekartzak/na	ballekartzok/na	bagenkartzok/na	ballekartziek/na
Guk				
Hareik	ballekartziek/na	ballekartziek/na	bagenkartziek/na	ballekartziek/na

6.4.2.3. Eroan

	niri	hari	guri	harei
Nik				
Hark	balleroaztek/na	balleroatzok/na	balleroazkuk/na	balleroatziek/na
Guk				
Hareik	balleroaztiak/na	balleroatziek/na	balleroazkuek/na	balleroatziek/na

6.4.2.4. Eritzi

	niri	hari	guri	harei
Nik		baneritxok		baneritxek/na
Hark		baleritxok		baleritxek/na
Guk		bageneritxok/na		bageneritxek/na
Hareik		baleritxoek		baleritxiak/na

7. Ondorioak

Lerro hauetan azaldu gura izan dudana, izatez, saio edo ahalegin bat baino ez da. Eskari batetik sortutako lan teoriko baten emaitza, hain zuzen ere. Argitalpen honek arratiar euskaltzale adoretuak asetuko balitu helburu praktikoena beteko luke, zalantza txikienik barik.

Behin behineko helburu horrez gain, bigarren helburua, era honetako ekarpenaren marko teorikoa bilatze eta kokatzean datza. Behin hizkuntza estandarren normatibizazioa geldiezintzat jo ondoren, euskalkiak eta tokian tokiko hizkerak aldaera estandar horren eragipetik babesteko mekanismoak sortu behar direla uste dutenetariko naiz.

Aldaera estandarren eragin indartsu eta bortitzak euskalkiak eta hizkerak guztiz desitxuratu aurretik hauen alderako harresi eraginkorrenak nola sortu da gakoa edo giltza arazo honetan. Eta hauetako bat eremu txikiko aldaeren nola edo halako normatibizazioa dela deritzot. Izan dadin lurralde-berbetea, zein azpilurralde-berbetea, baina tokian tokiko hizkeren egituren zaintze-lana ezin-utzizkoa da.

Lan honetan zehar erregistro informal edo lagunartekoan erabiltzeko den Arratiako aditz alokutiboaren hitanozko formak bateratu dira. Geroak esango lan honek fruiturik emango duen eta fruitu horiek inoiz umotuko diren.

8. Bibliografia

- Agirregoikoa, R. (1993). *Zeanuriko euskera: aditza (argitaragabea)*.
- Alberdi, X. (1986). "Alokutibotasuna eta tratamenduak euskaraz: II. Markinaldeko kasua", *ASJU* XX-2: 419-486.
- Arrizabalaga, J. M. / Katalin Petralanda (1987). *Zeberiko itanoa eta hizkera (argitaragabea)*.
- Auer, P. / F. Hinskens (1996). "The convergence and divergence of dialects in Europe. New and not so new developments in an old area", *Sociolinguistica* 10: 1-30.
- Aurrekoetxea, G. (1994). "Hitanoa ahozko hizkuntza, Euskal Herriko Hizkuntza Atlasaren arabera", *Euskera* XXXIX-3: 995-1009.
- Aurrekoetxea, G. (2003). "Estandarra eta dialektoen arteko bateratze joerak. Hizkeren berdintze fenomenoak" in Larry Trask-en omenezko liburuan (argitaratzeko).
- Barrutia, E. (1991). "Bizkaiko hikearen jokabidea", *Euskal Sintaxia*, Bilbo: Labayru Ikastegia, 91-120.
- Euskaltzaindia, EHHA batzordea, Arratiako hitanoari buruzko datuak (jasotzaileak, Atutxa eta Aurrekoetxea).
- Euskaltzaindia (1993). *Euskal Gramatika Laburra: Perpaus Bakuna*, Bilbo, 401-407.
- Euskaltzaindia (1994). "Adizki alokutiboak (hikako moldea)", 14. Araua.
- Gaminde, I. (1988). "Bizkaiko Aditz trinkoen alokutiboak", *FLV* 52: 181-240.
- Irigoien, A. (1983). "Bizkaiko aditzaren erabileraz oharrak", *Euskera* XXVIII-1: 97-101.
- Knörr, H. (1977). "Hiketa eta Hitanoaz zenbiat argi", *Euskera* XXII: 701-719.
- Larrakoetxea, I. (1928). *Grimm anaien ipuinak* [2001], *Grimm anaien berrogeita hamar ume ipuin*, Miren Atutxaren sarrera eta moldaketagaz, Bilbo: Sutondoan sorta, Labayru-BBK Fundazioa].
- Oregi, J. (1977). "Birrazterpen bat: Hiketa eta Zuketa", *Euskera* XXII: 685-700.
- Pujana, P. (1970). *Euskal aditza bizkaiera*, Bilbo: Geu.
- Rebuschi, G. (1981). "Autour des formes allocutives du Basque", *Iker* 1, Bilbo: Euskaltzaindia, 307-320.
- Txillardeggi (1968). "Hika eta Zukako aditz-joko edo konjugazioaz", *Euskera* XIII: 127-136.
- Videgain, X. (1983). "Alokutibo Lopez-engan (1782)", in *IKER* 2, Bilbo: Euskaltzaindia, 625-646.
- Yrizar, P. de (1981). *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* I-II, Donostia: GAK.
- Yrizar, P. de (1992). *Morfología del verbo auxiliar vizcaino (estudio dialectológico)*, I-II, Bilbo: Euskaltzaindia.